Baltzuko akziodunen Batzar Nagusiak hartutako akordioaren arabera.

*2. Atala.*– Baltzuaren Estatutuen 5. ataleko 1. idazatia aldatzen da, aurrerantzean honela diola:

«*5. Atala.*– Kapital Soziala.

1.– Kapital Soziala, erabat harpidetuta, bi mila bostehun eta hirurogeita hamabost milioi pezetatan (2.575.000.000 PTA) finkatzen da, mota bakarreko bostehuna mila pezetako bost mila ehun eta berrogeita hamar 5.150 akziok osatuta, hurrenka batetik (1) bost mila ehun eta berrogeita hamarrera (5.150) zenbatuta, biak barne, eta titulutan gauzatuta. Guztiak daude erabat ordainduta.

Akzioak taloi-liburutan egongo dira».

Vitoria-Gasteizen, 1996ko azaroaren 19an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza
eta Ingurugiro sailburua,
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.

de pesetas (558.000.000 PTA) y en los términos del acuerdo adoptado por la Junta General de accionistas de la referida Sociedad.

*Artículo 2.*– Se modifica el artículo 5, párrafo 1.º de los Estatutos Sociales, que en lo sucesivo quedará redactado como sigue:

*Artículo 5.º.*– El Capital Social.

1.– El Capital Social, totalmente suscrito, se fija en dos millones quinientas setenta y cinco millones (2.575.000.000 PTA), representado por cinco mil ciento cincuenta (5.150) acciones, de quinientas mil pesetas nominales cada una de clase única, numeradas correlativamente del uno (1) al cinco mil ciento cincuenta (5.150), ambos inclusive, y materializadas en títulos, de las cuales todas se hallan totalmente desembolsadas.

Las acciones vendrán dispuestas en libros-talonarios»

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 19 de noviembre de 1996.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Hacienda y Administración Pública,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Ordenación del Territorio,
Vivienda y Medio Ambiente,
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.

## JUSTIZI, EKONOMI, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### Zk-5864

AGINDUA, 1996ko azaroaren 6koa, Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legera egokitzeko Portugaleteko (Bizkaia) «Fundación Manuel Calvo» fundazioko estatutuetan egindako aldaketa Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioen Erregistroan inskribatzeari buruzkoa.

Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legera egokitzeko, Portugaleteko (Bizkaia) «Fundación Manuel Calvo» fundazioko estatutuetan egindako aldaketa onar dezala eskatuz eta aldaketa Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioen Erregistroan inskriba dezala eskatuz Fundazioen Babesletzari egindako eskabidea ikusi eta aztertu da. Hauek dira

AURREKARIAK

1.– 1996ko ekainaren 6an, Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioen Erregistroan, Portugaleteko (Bizkaia)

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, ECONOMÍA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

### N°-5864

ORDEN de 6 de noviembre de 1996, del Consejero de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social, en relación a la Inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco de la Modificación de los Estatutos de la denominada «Fundación Manuel Calvo» de Portugalete (Bizkaia), en adaptación a la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

Visto y examinado el expediente por el que se solicita la aprobación del Protectorado de Fundaciones, de la modificación de los Estatutos de la «Fundación Manuel Calvo», de Portugalete (Bizkaia), acordada en adaptación a la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, así como la inscripción en el Registro de Fundaciones de la misma, en base a los siguientes:

ANTECEDENTES DE HECHO

1.º.– El 6 de junio de 1996 tuvo entrada en el Registro de Fundaciones del País Vasco escrito signado

«Fundación Manuel Calvo» fundazioaren izenean eta ordez, bertako Patronatuko idazkari den María Jesús Pereda Chávarri andreak izenpeturiko idazki bat aurkeztu zen. Idazkariaren bidez, Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legera egokitzeko fundazioko estatutuetan egindako aldaketa onartzeko eta aldaketa Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatzen zaio Babesletzari.

2.– Eskabide horrekin batera eskritura publikoa aurkeztu zen, Portugaleten 1995eko maiatzaren 24an, Portugaleteko notario eta Bilbaoko Elkargoko kide den Eugenio María Gomeza Eleizalde jaunaren (1.170 protokolo zk.) aurrean fundazio horren ordez Gerardo Pradas Calvo jaunak, Javier Martínez Suescun jaunak eta Santiago Mier Arriola jaunak egindakoa. Eskritura publiko horren bitartez, Babesletzak 1995eko maiatzaren 9an hiri horretan egindako bileran fundazioko estutuak aldatzeko hartutako akordioa publiko egin zen.

3.– 1995eko ekainaren 29an, Azterlanen eta Araubide Juridikoaren zuzendariak, Portugaleteko «Fundación Manuel Calvo» fundazioari estatutuetako 8. atalean egindako hutsak zuzen zitzala eskatu zion, hutsak Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzko Legearen kontrakoak direlako. Atal horretan jasotzen denez, patronoak dagokion jarduna bere fede eta kontzientziari jarraituz beteko du, ondasunen inbertsioan eta helburuan Estatuaren nahiz beste erakunde publiko baten eskuhartzerik gabe. Dena den, fundazioak ez dio errekerimenduari erantzunik eman.

4.– 12/1994 Legeko 36-4. atalean eta 404/1994 Dekretuko 8-3 eta 62. ataletan agindutakoari jarraituz, 1996ko urriaren 11n Gizarte Ongizateko zuzendariak aldeko txostena eman zion Portugaleteko (Bizkaia) «Fundación Manuel Calvo» fundazioko estatutuetan egindako aldaketa inskribatzeari. Onarpen horretatik kanpo geratu ziren, ordea, Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzko Legearen aurkakoak diren estatutuetako aginduak, eta ondorioz, horiek indarrik gabe geratuko dira.

## OINARRI JURIDIKOAK

*Lehenengoa.*– Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari dagokio agindu-bidez estatutuetako aldaketen espedientea ebaztea, Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzko Legeko 36-3 eta 40. atalen eta urriaren 18ko 404/1994 Dekretuko 7-1.a) atalen arabera.

*Bigarrena.*– Espediente hau legitimazioa duen pertsona juridiko batek izapidetu du. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren xehetasunak eta agiriak erantsi zaizkio. Gainera, estatutuen aldaketari buruz, Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzko Legeko 31. atalean, urriaren 18ko 404/1994 Dekretuko 62. atalean eta fundazioko estatutuetan eskatutako baldintza guztiak bete dira bereziki.

*Hirugarrena.*– Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzko 12/1994 Legeak (EHAAko 135. alea) fundazio diren entitate juridikoentzat ezartzen duen araudi berria kontutan hartuta, legelariak, lege horreta-

por Doña María Jesús Pereda Chávarri, actuando en nombre y representación de la «Fundación Manuel Calvo», de Portugalete (Bizkaia), en calidad de Secretaria del Patronato de la misma, solicitando la aprobación del Protectorado de la modificación de los Estatutos fundacionales, en adaptación a la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, así como la inscripción de la misma en el Registro de Fundaciones del País Vasco.

2.º.– A la citada solicitud se adjuntó Escritura Pública otorgada en Portugalete en fecha 24 de mayo de 1995 por D.Gerardo Pradas Calvo, D.Javier Martínez Suescun y D.Santiago Mier Arriola, en nombre y representación de la citada entidad fundacional, ante D.Eugenio María Gomeza Eleizalde, Notario de Portugalete, del Ilustre Colegio de Bilbao (n.º de protocolo 1.170), por la que se elevó a público el Acuerdo de modificación de los Estatutos fundacionales, adoptado por el Patronato en la reunión celebrada en la citada Villa el 9 de mayo de 1995.

3.º.– El 29 de junio de 1995, el Director de Estudios y Régimen Jurídico requirió de la «Fundación Manuel Calvo», de Portugalete, la subsanación de determinadas deficiencias contrarias a la Ley de Fundaciones del País Vasco, observadas en el artículo 8.º de los Estatutos fundacionales, en los aspectos relativos al ejercicio del cargo de Patrono conforme a su fe y conciencia y la prohibición de toda injerencia del Estado o cualquier organismo público en el destino e inversión de bienes, sin que dicho requerimiento haya sido cumplimentado por la citada fundación.

4.º.– El 11 de octubre de 1996 el Director de Bienestar Social emitió Informe favorable a la inscripción de la modificación estatutaria de la «Fundación Manuel Calvo», de Portugalete (Bizkaia), en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 36-4 de la Ley 12/1994, así como en los artículos 8-3 y 62 del Decreto 404/1994, con la salvedad de aquellas disposiciones estatutarias que contradigan la Ley de Fundaciones del País Vasco, las cuales deberán quedar sin efecto.

## FUNDAMENTOS JURÍDICOS

*Primero.*– Corresponde al Consejero de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social dictar, mediante Orden la Resolución del expediente de modificación estatutaria, en base a los artículos 36-3 y 40 de la Ley de Fundaciones del País Vasco, y 7-1.a) del Decreto 404/1994, de 18 de octubre.

*Segundo.*– El presente expediente ha sido promovido por persona jurídico privada legitimada para ello y al mismo se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos previstos en los artículos 31 de la Ley de Fundaciones del País Vasco, 62 del Decreto 404/1994, de 18 de octubre, y los Estatutos Fundacionales en lo que afecta a la modificación de los mismos.

*Tercero.*– Habida cuenta del nuevo marco normativo que para las entidades jurídicas fundacionales del País Vasco supone la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco (BOPV n.º135), el legislador ha

ko aldibaterako xedapenetatik lehenengoaren bidez, bi urteko epea jarri du indarrean jartzen denetik aurrera, lege hori indarrean sartu baino lehen eratu ziren arren araudi horri loturik dauden fundazioek beren estatutuak legeko aginduetara egokitu zitzaten.

Portugaleteko «Fundación Manuel Calvo» delakoak legez ezarritako epean eta moduan egokitu ditu estatutuak eta Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko aurkeztu ditu. Baina ez ditu estatutu guztiak legera egokitu, Azterlanen eta Araubide Juridikoak 1995eko ekainaren 29an hutsak zuzentzeko errekerimendua egin zion arren. Egoera horrek, ondorioz, lege horretako 7.3. atalaren indarrez, fundazioaren estatutuetako 8. atalaren ondorio juridikoak galtzea dakar, patronoen kargua beren fede eta kontzientziari jarraituz burutzeari eta ondasunen inbertsioan eta norakoan Estatutuak nahiz beste erakunde publiko batek eskuhartzeko debekuari dagokienez. Izan ere, bi alderdi horiek Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioen Legean agindutakoa hausten dute, bereziki 13. atalean agindutakoa -patronoen betebeharrei buruz- eta 35. atalean agindutakoa -likidazioari buruz-.

*Laugarrena.–* Patronoaren kargua erabiltzeari dagokionez, fundazioko patronatuko kideek obligazioa dute -Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzko Legeko 13. atala- fundazioko helburuak estatutuei eta legeari hertsiki lotuz betetzeko eta betearazteko, erantzule izango direlarik kargua erabiltzearen ondorioena, legeek ezartzen duten moduan.

Estatuaren edo beste agintari publiko baten eskuhartzeari dagokionez, kontutan hartuta fundazioko estatutuetan ez dagoela aurrikuspenik fundazioaren likidaziotik datozen ondasunen norakoari buruz, aipatzekoa da ondasunen norakoa desagertutako fundazioaren antzeko helburuak dituzten fundazio edo entitateen artean banatzea Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioen Babesletzari dagokiola, hala agintzen baita Fundazioei buruzko Legeko 35. atalean.

Lege eta arau hauek aztertu dira: indarrean dagoen Konstituzioa; Euskal Autonomi Elkarteko Estatutoa; Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzko Legea; eta Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Antolamendu eta Jarduerarako Araudia onartzeko den urriaren 18ko 404/1994 Dekretua, eta kasu honetan aplikatzekoak diren gainerako arau orokorrak. Horiek horrela,

Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuak, hau

ERABAKI DU:

*Lehenengoa.–* Portugaleteko (Bizkaia) «Fundación Manuel Calvo» fundazioko estatutuetan egindako aldaketa, bertako Patronatuak 1995eko maiatzaren 9an onetsia, onartzea, indarrik gabe geratuko direlarik Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen aurkakoak diren estatutuetako xedapenak.

establecido a través de la Disposición Transitoria Primera de la citada Ley, un plazo de dos años a partir de su entrada en vigor para que las fundaciones sujetas a dicho marco normativo y constituidas con anterioridad a su entrada en vigor lleven a cabo la adecuación de sus estatutos fundacionales a las prescripciones de la Ley.

En el supuesto de la «Fundación Manuel Calvo», de Portugalete, la misma ha procedido en tiempo y forma legalmente establecida, a adaptar sus estatutos y presentarlos para su inscripción registral en el Registro de Fundaciones del País Vasco, sin que dicha modificación estatutaria haya sido en su integridad adecuada a la Ley,- pese al requerimiento efectuado en subsanación de defectos por el Director de Estudios y Régimen Jurídico en fecha 29 de junio de 1995-, lo cual conlleva en virtud del artículo 7.3 de la citada norma legal, la pérdida de efectos jurídicos del artículo 8 de los Estatutos fundacionales, en lo que hace referencia al ejercicio del cargo conforme a la fe y conciencia de los patronos y la prohibición de injerencia del Estado o cualquier organismo público en el destino de bienes, por contrariar ambos extremos lo dispuesto en la Ley de Fundaciones del País Vasco, y en concreto, el artículo 13, que establece la obligación de los Patronos, y el artículo 35, relativo a la liquidación.

*Cuarto.–* En lo que respecta al ejercicio del cargo de Patrono, interesa significar que los miembros del Patronato fundacional tienen la obligación,-ex artículo 13 de la Ley de Fundaciones del País Vasco-, de cumplir y hacer cumplir estrictamente los fines fundacionales conforme a la ley y los Estatutos, siendo responsable de las consecuencias derivadas del ejercicio de su cargo en los términos que determinen las leyes.

Asimismo, y en lo que a la intervención del Estado u otra autoridad pública, importa señalar, habida cuenta que los estatutos fundacionales carecen de previsión alguna en lo que afecta al destino de bienes procedentes de la liquidación fundacional, que corresponderá al Protectorado de Fundaciones del País Vasco, en virtud del artículo 35 de la Ley de Fundaciones, la determinación de su destino entre fundaciones o entidades que persigan fines análogos a la extinguida.

Vistos la Constitución vigente, el Estatuto de Autonomía del País Vasco, la Ley de Fundaciones del País Vasco, el Decreto 404/1994, de 18 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento del Protectorado y Registro de Fundaciones, y demás normas de general y pertinente aplicación.

El Consejero de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social,

RESUELVE:

*Primero.–* Aprobar la modificación de los Estatutos de la «Fundación Manuel Calvo» de Portugalete (Bizkaia), acordada por el Patronato de la misma, en la reunión celebrada el 9 de mayo de 1995, quedando sin efecto las disposiciones estatutarias que contradigan a la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

*Bigarrena.–* Fundazio horren estatutuetan egindako aldaketa Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, estatutuak 12/1994 Legera egokitzeko aldaketarako akordioa publiko egin zuen 1995eko ekainaren 27ko eskritura publikoan (2.361 protokolo zk.) ezarritako modu berberean. Halaber, erregistroan adierazi egin beharko da estatutuetako 8. atalak ondorio juridikoak galdu egin dituela, bai ondasunen inbertsioan edo norakoan Estatutuak edo beste erakunde publiko batek eskuhartzeko debekuari dagokionez, bai patronoaren jarduna bere fede eta kontzientziari jarraituz betetzeari dagokionez.

*Hirugarrena.–* Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek amaitu egiten du administrazio bidea; beraz, bere aurka, administrazioarekiko auzierrekurtsoa aurkez dakioke Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Salari. Horretarako epea bi hilabetekoa izango da, agindua argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Errekurtsoa aurkeztu ahal izateko, ezinbestekoa izango da organo hau jakinaren gainean jartzea, hala agintzen baitu azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Lege Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzkoak.

Vitoria-Gasteiz, 1996ko azaroaren 6a.

Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte
Segurantza sailburua,
RAMÓN JÁUREGUI ATONDO.

*Segundo.–* Ordenar la inscripción de la modificación estatutaria de la citada Fundación, en idénticos términos a los establecidos en la Escritura Pública (n.º de protocolo 2.361) de fecha 27 de junio de 1995, que eleva a público el Acuerdo de Modificación Estatutaria adoptado en adaptación a la Ley 12/1994, debiéndose tomar nota registral de la pérdida de efectos jurídicos del artículo 8 de los Estatutos fundacionales en lo que se refiere a la prohibición de injerencia del Estado,o cualquier Organismo Público, en lo que al destino e inversión de los bienes se refiere, así como al ejercicio del cargo de Patrono conforme a la fe y conciencia.

*Tercero.–* Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a la publicación de la misma.

Para la interposición del recurso, será requisito imprescindible que con carácter previo se comunique a este órgano la interposición del mismo, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 110 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 6 de noviembre de 1996.

EL Consejero de Justicia, Economía,
Trabajo y Seguridad Social,
RAMÓN JÁUREGUI ATONDO.

**Zk-5865**

ERABAKIA, 1996ko urriaren 30ekoa, Enplegu eta Prestakuntza zuzendariarena, Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 27ko 325/1995 Dekretuaren indarrez izapideak egindako dirulaguntza-espedienteari buruz hartutako 6-0024-0076-96A erabakia jakinarazten duena.

Dela gutunak banatzerakoan etxean ez zegoelako, dela eskatzaileak berak esandako helbidean ezezaguna delako, ez dugu behean adierazten den espedienteari buruz hartutako erabakia postaz jakinarazterik izan. Hortaz, Herri-Administrazioen Lege-Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 59.4 atalean ezarritakoaren arabera, honako hau

ERABAKI DUT:

Enplegu eta Prestakuntza zuzendariak behean adierazten den espedienteari buruz dirulaguntza ukatuz emandako erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren

**N°-5865**

RESOLUCIÓN de 30 de octubre de 1996, del Director de Empleo y Formación, por el que se notifica la Resolución n.º 6-0024-0076-96A adoptada en el expediente de solicitud de subvención tramitado al amparo del Decreto del Gobierno Vasco 325/1995, de 27 de junio.

De conformidad con lo establecido en el artículo 59.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y no habiendo sido posible notificar a través del Servicio de Correos la Resolución recaída en el expediente que se relaciona, por ausencia en horas de reparto o por ser desconocido en el domicilio fijado por el interesado.

RESUELVO:

Notificar mediante publicación en el Boletín Oficial del País Vasco la Resolución denegatoria adoptada por el Director de Empleo y Formación recaída en el expe-